



BIZIPOZA

2019 URTEKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUA

SORLAND

HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, SORLAND-i Bizipoza Elkarteari buruzko informazioa helaraztea du helburu, aurrerantzean bi erakundeen arteko elkarlanaren inguruan erabaki ahal izateko, SORLAND-ek informazio guztia eskura izan dezan.

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- **Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa**
- **Bizipozaren helburu nagusiak**
- **Bizipozaren jatorria eta gaur egungo izaera eta partaideak.**
- **Bizipozaren egitasmo ildoak.**
- **2019 urteko ekimen zehatzen plangintza oinarria.**
- **Aurrekontua**

BIZIPOZA KULTUR ELKARTEA (www.bizipoza.eus)

BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte , haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.
- Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.
- Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.

BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.
- Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuaz.

<u>BIZIPOZAREN JATORRIA ETA GAUR EGUNGO IZAERA ETA PARTAIDEAK</u>

- **Jatorria**

BIZIPOZA Irrien Lagunak Klub-etik (ILK) sortu zen. Klub hori Katxiporreta pailazo taldeak, Elkar argitaletxeak eta Berria egunkariak osatzen duten S.L-ak sortu zuen. ILK Euskal Herriko haurrei eta beren familiei zuzentzen zaien komunikazio eta harreman esparru estrategikoa da, batez ere, ikuspegi hezitzailea duena. ILKk emandako urrats honetan, BIZIPOZAK bere nortasun eta ibilbidea izango zuen elkarte autonomoa izatea zen helburua, eta hori lortu da dagoeneko; 2016 urtetik hona izaera bereziko elkartei bisualizazioan, sentsibilizazioan eta baliabideetan laguntzeko sarea, euskaraz, auzolanean eta bizipozez diharduena gizartegintzan da Bizipoza.

Bizipoza elkarte gaur egun elkarteek, bazkide eta bolondres sare batek osatzen du. Gaur egun Bizipoza proiektua 22 bazkideren artean aurrera eramaten den proiektua da, bolondres sare bat ere proiektuko parte dena eta izaera bereziko gaiak lantzen dituzten 35 elkartek osatua.

- **Gaur egun, Bizipoza proiektuko partaideak eta antolaketa eredia**

Elkartea elkarteekin, bazkide eta boluntarioekin osatzen da.

- Elkarteak

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 35 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteak. Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarten arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarten lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 35 elkarteak:

- 1.- ADEMG: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarte
- 2.- AFESTA: Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familien Elkarte
- 3.- AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkarte.
- 4.- AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkarte.
- 5.- ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarte
- 6.- ASPANIF guraso elkarte, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaiok izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.
- 7.- ASPANOGI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.
- 8.- BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- 9.- BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkarte.
- 10.- BIHOTZEEZ: Kardiopatiadun haurren familien Elkarte.
- 11.- BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.
- 12.- CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukraniako Dovorria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- 13.- NAIZEN : Naizen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adintxikiko transexualen familiak osatzen duten elkarte da.
- 14.- DRAVET : Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- 15.- ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- 16.- FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkarte.
- 17.- GEHITU: LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.
- 18.- GIZAKIEN LURRA: Laguntza zuzena babesik gabeko hurrei. Politika, arraza eta profesionaltasuna kontutan hartu gabe.

- 19.- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.
- 20.- OPORRAK BAKEAN : Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarteak.
- 21.- GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarteak.
- 22.- GURE SEÑEAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarteak.
- 23.- HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak
- 24.- JUNEREN HEGOAK: Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkarteak.
- 25.- KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkarteak.
- 26.- PAUSOKA ELKARTEA: Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.
- 27.- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- 28.- UME ALAIA: Adopzio Familien Elkarteak.
- 29.- ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarteak.
- 30.- ASPANOVAS : ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- 31.- SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA : Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzen laguntzea da.
- 32.- MINDARA ELKARTEA: MINDARAK jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarteak). Elkarteak sortze-helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jarduera osasungarrien bidez.
- 33.- SUPER HACHE ELKARTEA : Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkarteak.
- 34.- GUZTIOAK: Beharrian bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.

35.- NDANK-NDANK: Elkarte mistoa da, pertsona senegaldar eta euskaldunez osatuta.

Helburu

bikoitzarekin sortu zen elkarte, kulturartekotasuna sustatzeko batetik, eta bestetik,

Senegalen garapenerako lankidetzaz bultzatzeko.

Bazkideak

Elkarteko kide izango dira, urtean kuota bat ordainduko dute oinarrizko beharrei erantzuteko, eta haien esku egongo da, gainerakoak entzunda, elkartearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera izango dute Bizipozarekin kolaboratzen dute elkarteek eta edozein eratako gizarte eragileek. Betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea izango dute. Urteko kuotarekin batera, aukeran izango dute bestelako ekarpena ekonomikoak egiteko aukera.

- Bizipozako elkarten kasuan, hala nahi duten guztiak bazkide izango dira , eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkide:

- Irrien Lagunak Kluba
- Katxiporreta
- Elkar
- Hik Hasi
- Ikastolen Elkarte
- AEK
- HUHEZI unibertsitatea
- Algaraklown, ospitaleko pailazoak

- Naizen elkarte.

8

- Aspanif elkarte
- Dravet elkarte
- Euskal Herriko Down Syndrome Federazioa
- Gehitu elkarte
- Gure Señeak elkarte
- Kale Dor Kayiko elkarte
- Pausoka elkarte
- Bihotzez elkarte
- Aspanovas elkarte
- Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa
- Aspanogi elkarte.
- Super Hache elkarte
- Ndank-Ndank elkarte

▪ Boluntarioak

Bizipozako laguntzaile dira, parte hartzeko aukera izango dute kontsultarako eratuko diren organoetan eta bakoitzak ahal duen erako laguntza edo ekarpena egingo du, dirua jarriz -urtean ekarpen bat eginez-, lana eginez -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez-, edota bestelako edozer emanaz -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar-.

Boluntario izateko aukera dute: norbanakoek, Bizipozarekin kolaboratzen duten eta bazkide izan nahi ez duten elkarteek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek eta instituzioek.

Ondorengoak dira, gaur-gaurkoz Bizipoza elkarteko boluntario:

- Kutxa Fundazioa
- Real Sociedad Fundazioa
- Orona

9

- Irizar
- Bai Euskarari
- Kukai Dantza Taldea
- Elhuyar Fundazioa
- Laboral Kutxa
- BBK
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Maier
- Danobatgroup
- Athletic Club Fundazioa
- Mondragon Lingua
- Ekonomisten elkarte
- Fagor S. Coop.
- Ekin Thinking together

BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK

Bizipoza elkarteak, urteko egitasmoa urte horretarako lortutako baliabideen arabera garatzen du. Helburua da egitura minimoa bat izatea elkarteari eusteko, bazkide eta laguntzaile finkoen artean sostengatua, eta hortik aurrerakoak lor daitezkeen baliabideen arabera egitea.

Bizipozaren egitasmoak kontuan hartzen dituen egitasmo edo egitekoak:

- Elkarteen eta haiek lantzen duten errealitatea gizarteratzera begirakoak:
 - Irria aldizkariarekin elkarlanean ipuinak argitaratzea.
 - Ipuin horiek animazio bihurtzea, aurkezpen tresna erabil ditzaten.
 - Elkarteekin ekitaldiak eta emanaldiak antolatzea.
 - Bizipoza jaia.
 - Bolondres sareko gizarte eragile desberdinekin batera ekintza desberdinak aurrera eramatea: Real Sociedad Fundazioarekin batera aurrera eramatekoak, Kukai dantza taldearekin aurrera eramatekoak,...
 - Elkarte guzti hauek gizarteratzeko, dokumentala eta dokuweb-a egitea.
- Elkarteen arteko ezagutza eta kohesioa:
 - Prestakuntza saio orokorrak denei begira: komunikazioa nola landu kazetariekin, medikuntzako gaiak adituekin, elkarteen funtzionamenduaren ingurukoak...
- Bizipoza elkarte bera indartzeko, bazkide berriak eta boluntario sarea indartzekoak:
 - Komunikazioa eta harremanak

- Bazkidetza eta boluntario kanpainak

- Boluntariotza sustatzeko kanpainak eta boluntarioak antolatu eta koordinatzea. Boluntario hauek, Bizipozako elkarten beharretara zuzentzea.

2019 URTEKO EKIMEN ZEHATZEN PLANGINTZA OINARRIA

Ondorengoak dira 2019 aurrera eramango ditugun ekimenak:

- 1) Bizipozaren Jardunaldia : Elkarten barne komunikazioa eta barne zaintzaren ingurukoa.
- 2) Bizipozaren jaia antolatu eta burutzea.
- 3) Boluntarioak lanera gonbidatzeko sedukzio kanpaina burutzea eta boluntarioak koordinatzea.
- 4) Sare sozialetan presentzia indartzea eta webgunea berritu eta indartzea.
- 5) Durangoko azokan Bizipozaren presentzia indartzea stand-aren bidez.
- 6) Bizipozako elkarten inguruko ipuinak eta ikusentzunezkoak egitea eta ikastetxeetarako unitate didaktikoak egitea.
- 7) Bilbon ere egoitza eta proiektua kudeatzea.
- 8) Bizipoza eta Bizipozako elkarten dokuweb eta dokumentala egitea eta aurkezpenak burutzea Euskal Herrian zehar.
- 9) Bizipoza eta Bizipozako elkarten kantuak eta bideoklipak sortzea.

1) BIZIPOZAREN JARDUNALDIA : ELKARTEEN BARNE KOMUNIKAZIOA ETA BARNE ZAINZAREN INGURUKOA.

Bizipozaren III. Jardunaldiak Bizipoza osatzen duten 34 elkarten barne komunikazioa

eta barne zaintzaren inguruan hausnartu eta barne mailako komunikazioa eta zaintza landu eta hobetu ahal izateko gakoak lortzea izango du helburu .

2017an burututako I. Jardunaldiak Elkartearen arteko elkar ezagutza izan zuen helburu eta 2018an burututakoak Bizipoza Kultur Elkartearen, elkarte osatzen duten 34 elkartearen eta komunikabideen arteko harremanak indartzea izan zuen helburu .

12

- ✓ I. Jardunaldiaren aurkezpen bideoa lotura honetan ikusi daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=x6NkY1r6ArU>

- ✓ II. Jardunaldia osoa ondorengo loturan ikusi daiteke:

[https://www.youtube.com/watch?](https://www.youtube.com/watch?v=Sbh7j7X6tG0)

[v=Sbh7j7X6tG0&list=PLQy3vyAR5ojydKH823fUx2Lf9ABPi1BIG](https://www.youtube.com/watch?v=Sbh7j7X6tG0&list=PLQy3vyAR5ojydKH823fUx2Lf9ABPi1BIG)



2) BIZIPOZAREN JAIA.

Iraila bukaera, urria hasieran ospatuko dugun jaialdi honen helburu nagusiak BIZIPOZA gizarteratzea eta elkartearen lana gizarteratzea izango dira. 2018 urtean Errenterian, 2017 urtean Derion (Bikaian), eta 2016 urtean Usurbilen (Gipuzkoa) ospatu

izan da jaia. www.bizipoza.eus/bizipozaren-jaia/ orrialdean aurkitu ditzakezue aurreko jaialdietako egitarauak, bideoak...

2019 urtean Bizkaian ospatuko dugu jaia. Irailean izango da, Kale Dor Kayiko Ijitoen Elkarte, Aspanovas elkarte, Bilboko Udal eta Bizkaiko Aldundiarekin elkarlanean antolatutako festa izatea da helburua.

13

2019 urtean Kale Dor Kayiko elkartearen 30. urteurrena ospatzen da eta baita Aspanovas elkartearen 30, urteurrena ere, beraz, Bizipozako elkarte guztiok batera, Bizipozaren jaiaren bidez urteurren hauei bisibilitate haundiagoa emango diogu eta elkartuta jai giroan ospatuko ditugu urteurrenak, Bizipozako elkarte guztiak bisibilizatzearekin batera. Jaialdiaren helburu nagusiak BIZIPOZA gizarteratzea eta ELKARTEEN lana gizarteratzea izango dira eta jaiaren oinarriak AUZOLANA, ELKARTASUNA, EUSKARA ETA BIZIPOZA baloreak izango dira.

Egun osoko festa izango da, goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 19etan bukatuko dena. Helburu horiek lortzeko, gune desberdinak eta ekintza desberdinak izango dira egunean zehar.

✓ Guneak:

- Tailer eta puzgarrien gunea.
- Ikuskizunen gunea
- Elkarteak presente egongo diren gunea
- Bazkariko gunea

✓ Besteak beste, ondorengoak izango dira ekintza zehatzak:

- Elkartei protagonismoa emateko helburuarekin, egunean zehar, elkarte bakoitzak bere stand propioa izaten du, lantzen duten gaia eta elkarte bera gizarteratzeko helburuarekin. Honekin batera, elkarten presentzia jaian zehar indartzeko ekintza zehatzak burutuko dira. ; elkarteak ezagutzeko familiei zuzenduriko “piko-piko” jolasa, egun osoan zehar elkarteek parte hartuko dute irratsaioa....

- Elkarteen arteko harremanak indartzeko ekimen zehatzak burutuko dira.
- Gizarteari eta zehazki hurrei zuzenduriko ekimenak eta tailerrak burutuko dira gai desberdinen inguruko enpatia landuaz eta baloreen transmisioa egiteko helburuarekin. Tailer hauek ere elkarreek beraiek antolatutakoak izango dira batzuk.

14

- Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en ikuskizuna izango da, Irrien Lagunen ikuskizuna, eta Kale Dor Kayiko elkarteak proposatzen duen palmak eta kajoiak jotzen ikasteko ikuskizuna ere.
- Bazkari herrikoa burutuko da.
- Bilboko elkarte eta eragileekin batera osatuko da egun osoko egitaraua. (Bilboko edo inguruko herrietako eragileen ikuskizunak, tailerrak....) Bestetik, festaren antolaketa lan zein egunean zehar boluntario izango direnen ekarpenekin ere osatuko da egitaraua.

Aurreko urteko jaietan, batazbestez 4000 pertsonak hartzen dute parte jaialdian.



15

3) BOLUNTARIOAK LANERA GONBIDATZEKO SEDUKZIO KANPAINA + BOLUNTARIOAK KOORDINATZEA.

Proiektuaren helburu nagusia:

Boluntarioak erakartzeko eta prestatzeko kanpaina egitea da proiektuaren helburu nagusia. 2017 urtean egindako kanpainaren arrakasta ikusirik, 2017 urtean abiatutakoa indartzea izan du helburu 2018an burututako kanpainak ere eta 2019 urtean, bultzada haundiagoa eman nahi diogu boluntarioen sareari, boluntarioak lanera erakartzeko kanpaina bat burutuz eta boluntarioak koordinatuz.

2019 urtean hasita, boluntario kanpaina presentzialki indartuko dugu. Hau da, boluntario kanpaina zabalduko modu presentzialean Euskal Herri osoan zehar; hiriburuetan egingo dira ekimenak boluntario kanpaina aurkeztuz eta honen ondoren Euskal Herriko

eskualdeetan zehar ere burutuko dira ekimenak.

2019an ere lehen aldiz, I. Bizipozako boluntarioen topaketa burutuko dugu: bata, Donostian izango da Otsailean, eta bestea Bilbon Martxoan. Topaketa hauen helburua, boluntarioak elkar ezagutzea izango da batetik, eta bestetik, elkarrekin hausnarketak partekatuz boluntariora sendotzea, boluntarioak elkarteekin eta Bizipozarekin boluntario lanak egitea ahalbidetuz.

Proiektuaren irudiak

- ✓ 2017 urteko kanpainako bideoa : <https://www.youtube.com/watch?v=mli-97INlo>

- ✓ 2018 urteko kanpainako irudi eta bideoak : <http://www.bizipoza.eus/boluntario/>

16



Koordinazio lana

Bizipozaren baitan osatzen den norbanakoen boluntario sarea koordinatzea izaten da

Bizipozaren lana ere. Honetarako, boluntario guztiakin banan-bana telefonozko harremana burutzen da kanpaina bakoitzaren bukaeran. Harreman zuzen honen bidez, Bizipoza eta boluntarioen arteko harremana sendotzen da boluntario bakoitzaren nahi eta beharretara zuzenduriko boluntario lana zehazten da bakoitzarekin.

Telefonozko kontaktu zuzen honi, 2019 urtean burutuko dugun Boluntarioen topaketak antolatu eta bideratzea izaten da ere Bizipozaren lana.

Bestetik, ondorengo helburu zehatzak ditu boluntario kanpainak:

- 1.- Bizipoza proiektuan jaso eta emanaz parte hartuko duen norbanakoen bolondres sarea osatzea
- 2.- Bizipozan dauden 34 elkarteekin boluntarioki parte hartuko duten boluntario sarea osatzea
3. Boluntariotzaren inguruko hitzaldiak eta hausnarketa saioak antolatzea unibertsitateetan , gazte mugimenduko erakundeetan, fundazioetan, boluntarioekin, enpresa eta kooperatibetan...

2017 urtean hasitako lanaren ondorioz, gaur egun 120 pertsonak izena emana dute, denboraren bidez edo ekarpen ekonomiko bat aurrera eramanez, Bizipozako boluntario izateko. 2018ko boluntario kanpainaren ondorioz ere boluntarioen izen emateak gora egiten ari dira . Boluntario guzti hauek beraz, elkarteek aurrera eramaten dituzten ekimenetara bideratzea edo Bizipozak antolatzen dituen ekimenetara bideratzea izaten da Bizipozaren lana, boluntario lan hori elkarteekin batera egin ahal izateko. (2018ko boluntario kanpainaren sorkuntzan adibidez, norbanako boluntario sare honetako 8 lagunek ere hartu dute parte).

1.- Proiektua

Bizipoza Elkartearen iritziz, Bizipozaren Interneteko presentzia indartzeko beharra sortu da. Komunikazio eraginkor bat garatzeko eta Interneten Bizipozaren errealitatea eta ekintzak era erakargarri batean aurkezteko, harpidedunak eta boluntarioak lortzeko, diseinu atsegin eta ulerterrazekoa, bisuala eta erabiltzailearentzako lagunkoia beharko luke.

-Bizipozaren gaur eguneko web presentziaren inguruan, beharra ikusten dugu estrategikoki eta helburuei erantzungo dien plangintza bat garatzekoa. Elkarte bezala ditugun helburuak betetzeko eta elkarte-kideekiko eta Bizipozaren babesle eta laguntzaileen arteko komunikazioa hobetzeko helburuarekin.

-Informazioa ondo estrukturatua beharko du, helburu konkretu batzuei erantzungo diena, konbertsioaren ideia barneratuz, hau da, atal bakoitzean erabiltzailearekiko helburu batzuk finkatuz. Grafikoki atsegina dena eta elkartearen esentzia eta honen ekintzaren titular edo burukoak komunikatuko dituena.

18

-Webgunerako planteatutako atalak erabiltzaileen beharretara egokitutakoak izan beharko dira. Atal berriak sortu beharko dira helburu berriei zuzentzeko ere, boluntarioentzako atala, agenda eta berriak ere presentzia nabaria eduki beharko dute, hauetan harpidetzeko aukerarekin. Bizipoza elkartearen babesle eta laguntzaileen atala ere txertatuko dugu bertan.

-Gizarte-ekintzari zuzendutako komunikazioa izanda, sare sozialen erabilpen eta presentziaren azterketa egin beharko dugu, iada erabiltzen ditugunak indartuz eta indarrean ez ditugunak sortuz: facebook, twitter, instagram...

2.- Irudia.

Bizipozaren iruditegiarekin eta komunikazio estrategiarekin lerrokatutako grafismoa txertatzea, pertsonen presentzia erakustea eta elkarteak ere agertuta, bisualki sendoa izango

den diseinua gauzatuko dugu.

3.- Teknologikoki lagunkoia

Webgunea gailu mugikorretan egoki ikusteko modukoa izango da (responsive delakoa).

Bere kudeaketa errazteko eta Bizipozaren aldetik berrien atala kudeatu ahal izateko administratzailea izango du.

SEO edo Interneteko posizionamendurako lanketa oinarrikoa egingo da. Web analitiken jarraipena egiteko beharrezko tresnak ere martxan jarriko dira.

4.- Segurtasuna

Webguneak eraikitzeke erabiltzen dugun Wordpress plataformak, gero eta tresna hobegoak

eskaintzen dizkigu Interneteko mehatxuen aurrean. Hauek ekiditeko beharrezkoak diren programazioak instalatuko dira.

5.- Sare sozialen garrantzia.

Sare sozialak garatzen doazen heinean hauen pisua eta garrantzia gero eta handiagoa da publiko orokorraren artean. Interneteko lana hobetzen eta aberasten laguntzen dute, erabiltzaileak, harpidetzak eta boluntarioak lortu eta informatzeko ezinbestekoak dira.

19

Twitter, Facebook, Instagram. Hauen erabilera aztertuko dugu eta horrela, bakoitzari bere helburuak jarrita, honen presentzia nolakoa izan behar duen aztertuko dugu.

6. -Interneteko presentziaren inguruko planteamendu estrategikoa

Interneteko presentzia Bizipozaren estrategiarekin lerrokatzeko azterketa egingo dugu, ondorengo helburuekin:

-Webgunearen erabilera zein konbertsio-helburuak finkatzea; boluntarioak lortzea, harpidetzak bultzatzea, balizko informazioa eskuratzeko estekak...

-SEO edo posizionamendurako gakoak bilatzea.

-Erabilera intuitibo eta nabigazio lagunkoia lortzea.

7.- Proiektu osoaren aurrekontuaren azalpena:

- Lehen planteamendu estrategikoa
- Edukien administratzaileako webgunea
- Atal bakoitzaren maketazio eta programazioak, diseinua eta grafismoa garatzea.
- Nabigazio intuitibo eta garbiko webgunea.
- Gailu mugikorrei egokitutakoa.
- SEO edo posizionatze oinarritzakoa (Google business).
- Web analitika (Google analytics).
- Sare sozialen integrazioa.
- Webgunearen oinarritzako kudeaketa aurrera eramatea.
- Web zerbitzuen, hosting eta domeinuen kudeaketa.
- sarea kudeatzekoaren lana.
- Mantenu teknikoaren zerbitzua
- webgune bat komunikazio tresna bat den neurrian urtero neurtu beharko luke bere

eragin-gaitasuna eta urtero beharko lituzke eguneraketak eta esturktura-dinamiken aldaketak

hobeto komunikatzeko bere publiko-hartzailearekin.

Durangoko azokan ere presentzia izanez, Bizipoza elkarte bera gizarteratzen da eta Bizipozako elkarte lan ere bisibilizatzen da, elkartei beraiei, beraien materiala Bizipozaren stand-en bertan salgai jartzeko aukera emanez.

Durangoko azokan gure presentzia indartuko dugu sare sozialen bidez, prentsaren bidez... 2018 urteko azokan Durangon stand-a izatearekin batera, abenduaren 7an Durangoko

azokan bertan boluntario kanpainari hasiera emango diogu, goizean tailer bat burutuz eta arratsaldean Durangoko azokako Saguanbara gunean aurkezpena burutuaz. Aurtengo ekimenaren balorazioa ikusita, 2019an ere ekimen berezitu bat Durangon burutzea baloratuko da.



6) BIZIPOZAKO ELKARTEEN INGURUKO IPUINAK ETA IKUSENTZUNEZKOAK EGITEA ETA IKASTETXEETARAKO UNITATE DIDAKTIKOAK EGITEA.

2013tik hona elkarte bakoitzari eskainitako aurkezpen ipuinak argitaratzen joan dira Irrien Lagunak elkartearen *Irria* aldizkarian. Ipuin horien bidez, bi helburu lantzen dira: batetik, elkarte horren lana gizarteratu, haurrei eta gurasoei erakutsi elkarte horren egitekoa zein den; bestetik, elkarte horrek lantzen duen gaia azaltzea, inguruko haurrek dituzten diferentzia, ezintasun edo zailtasunak ahalik eta modurik naturalean erakutsi eta

hurbiltasuna sortzeko. Elkarte bakoitzari eskainitako launa orrialdeko ipuin komikiak doaz argitaratzen aldizkarian, zenbaki bakoitzeko elkarte bat. Elkarrekin oso ondo baloratu izan dute aldizkarian gauzatu den ekimena, eta ikusi dute elkarrearen eta elkarrekin lantzen duen gaia oso modu naturalean aurkezteko tresna oso egokia dela ipuina. 2019 urtean ere Irrien Lagunak-ekin elkarlanean, *Irria aldizkarian hilabetero* elkarrekin ipuinak sortu eta argitaratuko dira.



Azken 3 urteetan BBK Fundazioa eta Bizipozaren elkarlanaren ondorioz, Bizkaiko elkarrekin ipuinen **ikusentzunezko eta jokoak** sortu izan ditugu, ondorengo helburuak barnebiltzen dituztenak:

- Irria aldizkarian argitaratzen diren ipuinak paperetik ikus-entzunezkora bihurtzea. Horrela, animazioaren bidez euskarri berri bat izaten dugu urtero, eta lagungarri eta aberasgarri da elkarrekin eta hezkuntzan lanean diharduten elkarte, eragileentzat, eta ikastetxeentzat ere.
- Elkarrekin egiten duten lana gizarteratu, haurrei eta gurasoei erakutsi elkarte horren egitekoa zein den
- Elkarrekin lantzen dituzten gaiak azaltzea ikus-entzunezkoen bidez, inguruko haurrek dituzten diferentzia, ezintasun edo zailtasunak ahalik eta modurik naturalean erakutsi

eta hurbiltasuna sortzeko.

- ✓ Lotura honetan ikusi daitezke aurreko urteetako ikusentzunezkoak:

<http://www.bizipoza.eus/munduak-guztiontzat-beharko-luke/>

2019 urtean ere helburu izango da , Bizkaiko elkarten ikusentzunezko eta jokoak sortzeaz gain, beste herrialdeetako elkarten ikusentzunezko eta jokoak ere sortzea.

Ikusentzunezkoak ikastetxeetan lantzeko proposamen didaktikoa:

2018 urtean, HUHEZI unibertsitatko 4 ikaslek, Bizipoza elkartean praktikaldia aurrera eramanez. Praktikaldi honi esker, BBK Fundazioarekin batera urtero ekoizten ditugun elkarten ikusentzunezkoak ikastetxeetan lantzeko proposamen didaktikoa sortu dute. Urtero sortzen diren ikusentzunezko hauek Bizkaiko ikastetxe guztietara bidaltzen dira DVD formatuan, beraz, 2019 urtean iada DVDarekin batera haurrekin lantzeko proposamen didaktikoak helaraziko dira ikastetxeetara.

Nahiz eta DVD fisikoak Bizkaiko ikastetxeetara bidali, gainontzeko herrialdeetako ikastetxeek ere ikusentzunezko hauek Bizipozaren webgunetik deskargatzeko aukera dute, beraz, Euskal Herriko ikastetxe guztietan landu ahal izango da proposamen didaktiko hau.

2017 urtean, Bilboko elkarte baten eskutik, Bizipoza elkarteak dohaintza bat jaso du. Elkarte horrek erabiltzen zuen lokala, Bizipozaren esku geratuko da 2018 urtean. 2019 urtean zehar beraz, Bilbon eta Bizkaian Bizipoza proiektuak indarra hartzeko beste baliabide bat izango dugu. Urte honetan zehar, dohaintza hori aurrera eramateko pausoak bideratuko ditugu eta Bilbon proiektua indartzeko oinarriak finkatuko ditugu.

8) BIZIPOZA ETA BIZIPOZAKO ELKARTEEN DOKUWEB ETA DOKUMENTALA.

Bizipoza hazi ahal izateko kontatua behar du izan. Bizipozaren funtsa istorio pertsonalak dira. Bizitzaren ingurukoak, koloretsuak eta anitzak dira honako istorioak. Plazaratzeko modurik onena ikus-entzunezkoa da. Film txikiekin osaturiko web atari bat eta istorio txikiekin beteriko dokumentala egitera goaz.

Gu nor garen kontatzen duen web atari bat egitera goaz. Kontaketa koloretsu bat da, beste askoz osaturikoa. Elkarte bakoitzak bere istorioa kontatzen du. Elkarrekin sortzen dute Bizipoza: organikoa, bizia eta hazten dabilean.



Proiektuan, giza istorioak kontatzen esperientzia handia duen enpresa bat arituko da, Arena Comunicación ekoiztetxea alegia.

Emaitza mikro-dokumentalekin osaturiko web atari bat da eta istorio guztiak batzen dituen dokumental labur bat. Honako planteamendu honek – organikoa, anitza eta malgua- Bizipozari kontatzeko ahalmena ematen digu, gure esentzia pertsonalena mantentzea eta aldi berean proiektio handia izatea helburutzat izanda.

2018 urtean DANOBATGROUPEkin hitzarmen bat sinatu dugu eta hitzarmen horren bidez, Bizipozako elkartearen dokuweb-a eta Bizipozaren dokumentala sortzen ari gara. Dagoeneko 2018 urtean hasi gara grabaketekin. Helburua beraz, 2019 urtean dokuweb-a eta dokumentala gizarteratzea izango da.

2019 urteko udazkenean dokuweb eta dokumentalaren aurkezpen nagusia burutuko dugu eta data horretatik aurrera Euskal Herrian zehar dokumental eta dokuweb-a zabalduko ditugu, herri desberdinetan eta komunikabide ezberdinen bidez ere.

9) BIZIPOZA ETA BIZIPOZAKO ELKARTEEN KANTUAK ETA BIDEOKLIPAK SORTZEA

Ekimenaren helburu nagusia, Bizipoza osatzen duten 34 elkarteren abestiak eta bideoklip-ak sortzea da, elkarte bakoitzaren mezua musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko helburuarekin.

Sortuko diren euskarriak:

- Elkarte bakoitzaren kantua, Euskal Herriko abeslari edo bertsolariek sortutako letra izango duena eta Euskal Herriko musika taldeetako abeslariak abestuko dutena.
- Elkarte bakoitzaren kantuarekin sortutako bideoklip-ak. Bertan, elkarteetako lagunak, bertsolari edo idazleak eta abeslariak hartuko dute parte. Bideoklip hauek sare sozial eta weborrien bidez zabalduko dira.
- Elkarte bakoitzaren kantuarekin eta elkarte bakoitzaren postalekin osatutako CD a.

Edo

10 elkarteren abesti eta postalekin sortutako Cda.

+

Bizipozaren kantu eta bideoklip-a. (Abeslari guztiek parte hartuko dutena).

-
- Plangintza oinarri honetaz gain, urtean zehar hitzartzen ditugun bolondres sareko eragile berriekin adostutako ekimenak burutuko dira: Real Sociedad Fundazioarekin hitzartutakoak, Athletic Club Fundazioarekin hitzartutakoak.....

SARRERAK

BAZKIDEAK	12.000,00 €
GIZARTE ERAGILEAK	278.623,72 €
INSTITUZIOAK	28.500,00 €

GUZTIRA 319.123,72 €

GASTUAK

EGITURA	56.744,00 €
JARDUNALDIA	8.800,00 €
DOKUWEB ETA DOKUMENTALA	65.000,00 €
BOLUNTARIO KANPAINA	17.070,00 €
IKUSENTZUNEZKOAK	36.700,00 €
JAIA	100.509,72 €
BILBOKO INAUGURAZIOA	14.000,00 €
WEBGUNEA	20.300,00 €

GASTUAK 319.123,72 €